

ENPRESEN konfiantza

2020KO 4. HIRUHILEKORAKO
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa



LABORAL
kutxa


2020KO 4. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK



0 | INGURUNEA


LABORAL Kutxak Industria Konfiantzari buruzko inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei, 2020ko laugarren hiruhilekorako dituzten aurreikuspenen berri izateko. Bada, aurrekoaren ildo beretik, emaitza negatiboa da, COVID-19ak ekarritako osasun-krisiaren eraginez. Kasuak berragertzen ari diren honetan, berebizikoa izango da osasunaren eta ekonomiaren interakzioa nolakoa izaten ari den aztertzea. Edonola ere, egungo egoeran, enpresentzat zalantzaz eta zailtasunez betetako panorama aurreikusten da.

Hasteko, enpresek ingurune ekonomikoari buruz dituzten aurreikuspenei erreparatuta, % 71,1ek uste du egoerak okerrera egingo duela egungo hiruhilekoarekin alderatuta. Beraz, ekonomiaren bilakaerari buruzko ikuspegi negatiboa da nagusi.




1 | FAKTURAZIOA

2020ko laugarren hiruhilekoari begira, enpresek aurreikuspen negatiboak dituzte fakturazioari dagokionez. Hain zuzen, inkesta egin duten enpresen % 53k uste dute fakturazioa apalagoa izango dela, % 33,4k antzekoa izango dela eta % 13,6ren ustez hobera egingo du.




2 | JARDUERA

Aurreko adierazlearekin bat, eta 2020ko laugarren hiruhilekoan espero den jardueraren bilakaeraren aurrean, % 59,3ren iritziz okerrera egingo du eta % 9,8ren arabera hobera. Gainerako % 30,9ren ustez jardueran ez da aldaketarik izango.




3 | ESKABIDEAK

Saldutako kantitateek eta prezioek izango duten bilakaera da berehala sortzen den zalantza, gako horiek baitaude fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian. Ildo horretan, eskabideen mailak behera egingo duela espero da. Ondoren agertzen den irudian ikus daitekeenez, inkestari erantzun diotenen % 51,7k uste du bolumenak behera egingo duela eta % 12k hobera egingo duela. % 36,3k antzeko eskabide-bolumena aurreikusten du hurrengo hiruhilekorako.




4 | PREZIOAK

Era berean, prezioei dagokienez, % 36,3ren iritziz txikiagoak izango dira, eta % 60,3ren arabera egonkor jarraituko dute.



5 | ERRENTAGARRITASUNA


Eragiketen errentagarritasunaz galdetuta, % 48,9k erantzun du «txikiagoa» izango dela eta % 44,8k berdina izango dela; % 6,3k etekin handiagoa lortzea espero dute.



6 | INBERTSIOA


Orain arte aztertutako datuek egoera negatiboa erakusten dute. Jarraian ikusiko dugunez, enpresek atzeratu egin dituzte inbertsio-planak, etorkizuna argitu arte, egungo egoeran gehiegizko ahalmena dutelakoan.

Inbertsio-bolumenari dagokionez, enpresen % 44,2k uste du behera egingo duela **2020ko laugarren hiruhilekoan**. % 7,3k, berriz, inbertsio-bolumenak gora egitea espero du. Beraz, inkesta egin dutenen % 48,6ren ustez eutsi egingo zaio.



7 | ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 60,6k erantzun du enpleguan ez dutela aldaketarik espero; % 30,6k langile-taldea murriztu egingo dela, eta % 8,8k guztiz kontrakoa (plantilla handitu egingo duela).




2020KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



8 KONFIANTZA INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazleak (inguruneari buruzko iritzia izan ezik) gehitu eta haztatzen baditugu, **30,8ko** konfiantza-indizea lortzen dugu. Hortaz, gora egin du aurreko hiruhilekoko datuarekin alderatuta (**22,6**, segida historikoko baliorik txikiena). Horrek esan nahi du enpresek ekonomiaren bilakaerari buruz duten ikuspegia ezkorra dela, **2020ko laugarren hiruhilekoari** begira. Hala, indizearen balioa 50etik behera dagoenez, uzurtze-eremuan gaude (atzeraldian), beste eremu geografiko interesgarri batzuetan lortutako datuekin bat. Espainian, esaterako, 48,4ko datua lortu zen abuztuan. Euroguneko datua hobeia izan zen maiatzean: 51,9.

Bukatzeko, inkestan jasotako beste gai batzuren inguruko emaitzak aurkeztuko dizkizuegu jarraian, aurretik azaldutako indizearen osagai ez direnak. Esportazioek azken urtean izan duten bilakaerari erreparatuta, inkestatuen % 47,3k uste du okerrera egin duela, eta % 14,9k, berriz, hobera egin duela. % 37,8ren iritzian, kanpoko salmentek bere horretan jarraitu dute.




9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean berrikuntzari edo I+Gko ekimenei bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestatuen % 74,7 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 9,4k % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




10 | BEZEROEI KOB RATZ EKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 67,5en ustez, BEZEROEI KOB RATZ EKO EPEAN ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta luzatu egin da enpresen % 27,3ren iritziz. Hala, enpresen % 5,2ren esanetan, kobratzeko epea laburtu egin da.



11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Amaitzeko, inkestaturen % 65,6k erantzun du bankuen finantzaketa eskuratzeko aukerak ez duela aldaketarik izan azken urtean. Gainerako enpresei dagokienez, % 18,8k dio hobetu egin dela, eta % 15,6k lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.






2020AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN
BILAKAERAREN LABURPEN-DIAGRAMA

12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Diagrama honetan, aztertu ditugun azken bi hiruhilekoetako aurreikuspenen adierazle partzialen balioa eta osoko balioa ikus daitezke.

Enpresen aurreikuspenak



Fitxa teknikoa eta metodologia

EAEko 400 enpresari egin zaio inkesta.
